

azpeitian zer?

udal aldizkaria

187. zenbakia

GIZARTE BABESAREN BIDEZ, HERRITARREN BIZI KALITATEA HOBETZEN



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Martxoak 3, 10, 19, 21, 22, 27 eta 31

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Martxoak 2, 7, 8, 13, 16, 23 eta 30

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Martxoak 4, 9, 14, 15, 20, 24, 28 eta 29

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Martxoak 5, 12, 17 eta 26

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Martxoak 1, 6, 11, 18 eta 25

ALE HONETAN ZER?

Hezkidetza programa	3
Gizarte zerbitzuak	9
Goiz Lagun zerbitzua	14

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN



INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



hiriburu bihurtu nahi zuten eta horretarako erreferentziazko pisu eta neurri ofizialak Loiolara (Azpeitia – Azkoitia barrutiari zenbaitetan ematen zitzaion izena) bertara eraman nahi zituzten. Gipuzkoako Agiritegian gordeta zeuden merkataritzarako osagai ezinbestekoenaz jabetu nahi zuten (hiriburu bihurtzeko pauso garrantzitsu bat). Azpeitian bertan ere, pisu eta neurriekiko ardura zegoen eta Gipuzkoako Lurraldean zegoen aniztasuna kontutan hartuz, neurri ofizialak eta bateratuak izan zitzatela ahalegindu ziren.

HEZKIDETZA PROGRAMA





Urteak dira hezkidetza programa integralaren bidez, hainbat eragileren artean, herrian lanketa iraunkor eta sendoa egiten ari direla tratatu onen eta berdintasunaren alde. Ikastetxe guztiak, ikasleak, irakasleak, gurasoak, Udala eta beste hainbat eragilek elkar hartuta hezkidetza inguruko hausnarketa eta lanketa daramate aurrera. Hamarkada bat baino gehiago da lehen urratsak eman zirenetik, eta oraindik asko badago egiteko ere, gero eta handiagoa da eragile guztien arteko sentsibilizazioa eta inplikazioa.

“Eman diren pausoak izugarriak dira. Herri gisa hezkidetza programa integral bat dugu. Herritar desberdinen beharrei erantzuna ematen diena. Egiturazko sexismoa eta zapalkuntza ez dira egun batetik bestera desagertuko, baina gu pertsona eta harreman askeak oinarri dituen Azpeitia osatzeko lanean ari gara”, adierazi du Idoia Arizabalaga Parekidetasun zinegotziak.

Programa honen oinarrian, Udal Berdintasun Planean eta Emakumeen Mahaiak aurreikusitako beharra dago. Izan ere, lan eremu strategi-

koak identifikatzerako garaian hezkidetza politikak aplikatzearen beharra lehentasun gisa jo zen bi kasuetan. Hala, hezkidetza plana egin eta Azpeitian parekidetasuna eta harreman gozagarriak izateko programa jarri zen martxan. Ordutik, lanketa zehatzak egin, hausnartu eta erronka berriak identifikatuz jarraitzen dute. Bide horretan, dimentsio praktikoa eta estrategikoa uztartzea izan da oinarritzakoa, epe ertain edo luzeko aldaketa izanik helburu, iparrorratz hori izateko parte hartzaile guztien norabidea.



HERRI PROIEKTUA

Egitasmo honetan, funtsezkoa izan da hezkidetzaren inguruko lanketa ikasgeletatik atera eta hezkuntza komunitate osoan eta herrian txertatzea: "Momentu oro hezten gara herritarrok, txoko guztietan, eta hezkidetzaz bezalako gaiek lanketa transbertsala behar dute izan", zehaztu du Arrizabalagak.

Hala ere, maitasunaren edota afektuen hezkuntza eta honekin batera sexualitatearen hezkuntza, txiki txikitik hasten dela, eta ikastetxeen bidez egiten den hezkidetzaren lanketa oso garrantzitsua dela gaineratu du: "Aditu guztien arabera, hastapeneko urteek berebiziko garrantzia dute neska eta mutilen arteko jarrera, arau eta portaera egokiak ikasten joateko, eta etorkizuneko elkarbizitza berdintasun eta maitasunetik bideratzeko", zehaztu du. Hala,

ikastetxeetan, bakoitzaren beharren arabera urteko programazioa egin ohi dute.

Programa honek ikastetxeetan egiten den lanketaz gain, hiru oinarri sendo ditu: Hezkidetzaz foroak, Plax! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua eta autoantolaketa taldeak. Hiru oinarri sendo horien baitan, ekintza eta esku-hartze desberdinak egin ohi dira, eta hamarkadatik gorako ibilbide honetan herriko beharretara egokitzen eta moldatzen joan dira. Programaren lanketarako eta koordinaziorako Arremanitzeko taldea da bidelagun.

ESKOLETAKO SAIOAK

Herriko lau ikastetxeetan garatzen da Harremonak hezkidetzaz programa. Saio horietako helburu nagusiak formazioa, sentsibilizazioa, aholkula-

ritza eta saretzea dira. Ikastetxeetan saioak emaketik haratago ikastetxea bera tratatu onen unibertsoan murgiltzea da helburua. Horretarako gakoak, hezkidetzaz, parekidetasuna eta aniztasuna lantzeko moduak aurkitzeko ahalegina egiten da. Bide horretan, indarkeriari eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeriari eraginkorki aurre egiteko bidea lantzen da.

Ikastetxeetan saio ezberdinak egiteaz gain, autoantolaketarako hezten dira, beren aisialdian ere partaide aktibo bilakatzeko helburuarekin.


Gazteen bizitzaren parte diren eragileen inplikazioa bilatu da; ikastetxeak, gaztelekuak, ludotekak eta udal teknikariak. Herri hezkidetzaleagoa izateko, eragileen arteko elkarlana bultzatu da bakoitzak bere eremuan eta elkarrekin sortu daitezkeen sareak ehunduz.

Ikastetxeetan, lanketa desberdinak egiten dira. Alde batetik, ikasleei zuzenduriko tratatu onen eta sexualitatearen inguruko saioak eskaintzen dira. Horretaz gain, azken ikasturtean, sexuen arabera segregatutako lanketa zehatzak ere egin dira. Izan ere, honek ikasleei beste mota bateko lanketa eta ahaldunderako bidea eskaintzen die.

Ikasleekin hezkidetzaz lantzeaz eta irakasleekin jarraipen bilerak egiteaz gain, betaurerako moreak jantzi eta egunerokoan eragina izan dezaketen hezkidetzaz moduak lantzeko espazioak sortu dira. Eta sarea handituz, gurasoekin lanketa desberdinak egiteko saioak ere antolatu dira.

HEZKIDETZA FOROA

Hezkidetzaz egitasmoa herriko hezkuntza komunitate osoan txertatu eta proiektuari osotasuna emateko



urrats garrantzitsua izan da Azpeitiko Hezkidetzaz Foroa sortzea. Harremonak egitasmoa lantzen hasi zenetik, foroak forma desberdinak izan dituzte. Hezkidetzaren inguruko lanketaren hastapenetan eskualdeko foroan jarri ziren indarrak. Azken urtean, garrantzia berezia eman zaio Azpeitiko Foro propioa osatu eta indartzeari. Hala, irakasle, ikasle, guraso eta bestelako heziketa eragileak biltzen dira elkarlanean hausnarketa desberdinak egiteko.

PLAX! ZERBITZUA

Duela bostpasei urte bikote zein sexu aholkularitza zerbitzua eskaintzeko zerbitzua jarri zen abian, herri-tarrak sexu zein harremanen inguruko zailtasunen inguruko laguntza eskaintzeko.

Gizon eta emakumeek, bakarka edo konpainian, sexu eta bikote zailtasunak izaten dituzte bizitzako garai desberdinetan. Horiei irtenbideak emateko, jakin-minari erantzuteko eta genero estereotipoetan oinarritutako harreman sexualak gainditzeko, Azpeitiko Udalak herritarren zerbitzura du aholkularitza publiko profesionala, konfidentziala eta doakoa, osasun zentroen zerbitzu osagarri gisa.

Kontsultak egiteko edo hitzordua zehazteko
688897920 telefonora deitu dezakete herritarrek.

Zer ekarpen egin du hezkidetzaz programak?

Alde batetik, formatzea ekarri digu. Hezkidetzaz plana egiten ari ginen eta nahiko galduta geunden. Azaleko begiradan, gauzak ondo egiten genituela uste genuen, baina sakonera begiratzeari jabetu ginen intentziorik onenarekin egindako ekintzak ez zeudela egoki planteatuta. Formatu eta teorizatu ondoren, erabakiak hartu ditugu; programazioak hezkidetzaren ikuspuntutik berrituz.

Zer balorazioa egiten duzue?

Balorazio ona egiten dugu, orain gaia hobeto lantzen dugulakoan gaude, komunitate guztia sensibilizatuagoa dago, bai hezkidetzaz, sexu eta afektibitate arloan, baita genero-indarkeriaren prebentzioan ere.

Jolastokian garatu da aldaketa handiena

Jolastokiak haurren behar eta interesiei erantzun behar die, guztiei, ez bakar

batzuei. Duela gutxi arte, jolastokiak futbolekin eta saskibaloian jokatzeko ziren eta, batez ere, mutilek erabiltzen zituzten; erdigunean beti mutilak egon dira. Neskak eta kirol horiek gustuko ez dituztenak berriz, izkintan. Hori aldatu beharra dago.

Zein da transformazio nagusia?

Jolastoki gogor eta hotz bat genuen, jolasak bideratuta zeuden eta adin ezberdinetako umeak ez ziren nahasten. Espazioaren antolaketa, esterotipo batzuk sortzen ditu. Espazioa nola dagoen antolatuta, uste baino garrantzitsuagoa da.

Orain, elementu naturalez osatutako jolastokiak dugu eta ikasleek urtaroen aldaketa nabaritu eta naturaren zaintzaz ardura daitezke. Umeek jolastu egin behar dute; zizareak atera, gazteluak egin... Elementuek ez dute erabilera zehatzik, hierarkiari eta genero ikuspegirik gabe jolastea da helburua.

KARMELO ETXEGARAI



Hasieran irudikatzen zenuten oraingo egoera?

Ez hainbeste, gaur egun jolastokiak beste espazio bat da, ikaskuntzarako leku, esperimentaziorako, konpartitzeko. Ez genuen uste, espazioak horrelako eragina zeukanik. Zaintza aldetik ardura gehiago eskatzen digu, baina hori gustatzen zaie eta hori eskaintzen saiatzen gara. Umeen beharrak modu egokiagoan betetzen ditugulakoan gaude.



Zer ekarpen egin du Hezkidetzako programak?

Programak begirada berri bat zabaldu digu, bai ikastetxeetan, baita Azpeitian ere. Programa oso aberatsa da, ikasleak, irakasleak, familiak eta haur eta gazteekin lanean diharduten eragileak kontuan hartzen dituenak.

Zer-nolako balorazioa egiten du-zue?

Balorazioa oso positiboa da. Ikastetxeok zorte handia dugu horrelako programa aberats bat izateagatik, hezkuntzako eragile guztiongan eragina duena. Askotan egunerokotasunak 'jan' egiten gaitu eta automatismoetan sartzen gara, baina programan egoteak, begirada zabaldu eta hezkidetzaren inguruko lanketak egin behar ditugula gogorazten digu. Horrekin, gu, ikasle eta familiak aberasten direlakoan nago.

Autoantolaketa taldeak hemen hasi ziren, gogoratzen duzu nola?

Nola ahaztu nondik sortu zen! Batxilergoko ikasle batek, bortxaketa saiakera jasan zuen parrandatik etxera itzultzean. Zortez, sustoan geratu zen, baina gertaera horrek asko mugitu gintuen eta Arremanitzekin harremanetan jarri ginen, ikasle eta familiekin gertaerak sortutako emozioak lantzeko. Ikasle batzuk zerbaitek gehiago egi-

teko gogoz agertu ziren eta pixkanaka, Haizea Eiguren eta Mireia Agirrerekin bildu eta hainbat hausnarketa eta ekintza burutzen hasi ziren: gune ilunak aztertu, beldurrak landu... Ikasturtea bukatzeko, Sanjuandegirako lurraspiko pasabidea margotu zuten beste ikastetxeetako ikasleekin batera.

Zein ekarpen egiten die parte hartzen dutenei?

Autoantolaketak ikasleak dira gehien aberasten direnak. Lehen autoantolaketa taldeko neskak, pertsonalki indartu zirela uste dut eta ondoren parte hartu dutenak ere bai. Egiten dituzten lanketak oso aberasgarriak zaizkie. Horrek guri eragiten digu. Hezkidetzaren inguruan ikasle aktibo eta ekintzaileak ditugu, ekimenak egitea proposatzen digutenak, data zehatzak ospatu behar ditugula gogorazten digutenak.... Atzetik datozen ikasleentzat erreferentzi positiboa bihurtu daitezke, ikasle parte hartzaile eta dinamikoak.

Zein ekarpen egin dizute programak?

Diskriminazioa alor desberdinetan eman daiteke, baina hezkidetzari dagokionean, generoak baldintzatu gabeko heziketa batetara iritea da helburua. Zentzu horretan funtsezkoa da programaren ekarpena, berari esker heldu diogulako gaiari eta elkarlanean egitasmoak aurrera eramatea ahalbidetzen digulako.

Zein aldaketa eragin ditu?

Programari esker gaia mahai gainean eta batzorde bat eratu dugu. Ikasleen autoantolaketak taldeak ere sortzen ari dira. Ikasleak dira protagonistak eta antolatzeak garrantzi berezia hartzen du, ahalduzko eta besteengan eragiteko. Aurrera begira pauso kualitativoa eman eta lau urtetarako Hezkidetzako Plana osatuko dugu.

Egitasmoaren baitan hainbat saio egiten dituzue

Oso positiboa da. Ikasleak gustora ja-

sotzen dituzte formakuntza saioak eta curriculum formalak dituen hutsuneak betetzera dator. Beharrezkoa da hezkuntza formalean gai horiei lekua egitea.

Zein ekarpen egiten die ikasleei?

Gaur egun, badira ikasleek ikastetxean jasotzen ez dituzten hainbat eduki eta gaitasun: autonomia pertsonal, hezkuntza afektibo-sexual, hezkidetzako edo arlo sozioemozionalarekin zerikusia dutenak. Saio horietan dute aukera lantzeko.

Zertarako behar dute ikasleek hezkidetzako lantzea?

Berdintasunari aspaldi heldu zitzaion eta aldaketak eman arren,zenbait jarrerak eta estereotipo errepikatzen dira, beraz, hezkidetzako lantzea garrantzitsua da. Ikasleek aldaketa handiko urteak bizi dituzte, sexualitatearekin esperimentatzen hasten dira; gaia naturaltasunez landu eta kezkei leku egiteko espazioa izatea beharrezkoa da.



Emaizariak somatzen duzue?

Ikasle, guraso zein irakasleen formakuntza saio horiei esker gauzak (barruak) mugitu egiten dira, interes berriak azaleratzen dira eta egitasmo berriak bilakatzen dira. Lanean jarraitzerak bultzatzen gaituzte. Adibidez, autoantolakuntzako taldeen lanketari esker mutikoen jarrerak eta iritziak aldatzen ari dira.



Zer ekarpen egin du Hezkidetzako programak?

Informazio gehiago eman digu. Gai batzuk, "tabuak" izan daitezkeenak, normalizatzeko aukera. Urteak aurrera joan ahala, saioetan gaiaren inguruan sakondu eta gehiago ikasteko aukera eskaini digu.

Autoantolaketa taldean parte hartzea erabaki zenuten, zergatik?

Ikastetxean ekintzak aurrera eramateko aukera izateko. Gure aurretik egon zen autoantolaketa taldeak bultzatutako ekintzak guk ez genituen bizi izan, baina baguen beraien erreferentzia, eta guk ikastetxean berdintasunaren inguruko ekintzak egiteko beharra ikusten genuen. Feminismoa eta berdintasunaren gaiak, beldurrak, etab. lantzeko aukera izateko.

Nolakoa da esperientzia?

Ona. Gauzak ikasteko aukera eman digu. Emakume bezala indartzen ari gara. Informazio gehiago dugu eta gai gara gela batera joan eta berdintasunaren gaiari buruz hitz egiteko.

Autoantolaketan gehienbat neskek hartzen duzue parte, zergatik dela uste duzue?

Gehiago eragiten digulako. Mutilek ez dute ikusten edo ikusi nahi emakume

batzuen sufrimendua. Gure kasuan, guk ez dugu sufrimendu handirik sentitzen, baina beste emakume batzuen egoerak larriak direla ikusten dugu. Gure adineko mutilak, gure eskubideengatik borrokatzea "tontakeria" bat dela uste dute.

Uste duzue posible dela mutilak ere horrelako lanketetara hurbiltzea?

Gure adinean, momentu honetan, zaila ikusten dugu. Egiten ditugun lanketak ez dituzte askotan serio hartzen. Berdintasunaren gaia edo emakumeen eskubideen borroka bezalako gaiak lantzean, mutil batzuk "ofendituta" sentitzen dira. Era berean uste dugu horrela jartzen direla taldean daudelako, mutil askorekin bakarka hitz eginez gero, beste era batetara erantzuten dute. Askok ez daukate gai honen inguruan iritzi garbi bat. Heldutasunarekin batera gaiaren garrantzia baloratuko dutela uste dugu.

Zer-nolako balorazioa egiten du-zue?

Programari esker autoantolatze taldea sortu genuen, iaz. Hori da ekarpenik handiena; taldea lanean ari da urtebetez, lan polita egin izanaren sententzia dugu, baina taldeari jarraipena emateko zailtasunak ditugu. Hala ere, ahalegin berezia egitea merezi du bidari jarraitzeko.

Zer eman dizue autoantolaketa taldeak?

Autoantolaketak erakutsi digu sartzeko eta komunean daukagun helburua aurrera eramateko indarra dugula. Emakume bezala geure azalean jasaten ditugun eraso desberdinak identifikatu, ulertu eta erantzun kolektiboa ematen ikasi dugu. Sentitu dugu taldekoen artean sortu dugula konfiantza eta babes eremua, eta horrek asko indartze gaitu.

Emakumeek autogestionatutako talde bat izanagatik ez dugu genero problematika bakarrik landu. Homofobiaren

eta arrazismoaren inguruko lanketa bat egiteko beharra ikusi dugu eta egin ditugu hainbat hitzaldi. Bestalde, pare bat mutilek interesa jarri zuten taldean, eta ohartu ginen lehen aipaturiko indarkeri motaren bat jasotakoak zirela eta ikusi genuen beharrezkoa zela mugitu eta elkarrekin erantzunak ematea.

Hezkidetzako saioak ere jasotzen dituzue.

Oso interesanteak eta beharrezkoak direla iruditzen zaigu, geure buruarekin eta besteekin daukagun harremanak onak izateko.

Zein ekarpen egiten die ikasleei?

Eguneroko saioetan jasotzen ez ditugun hainbat eduki jasotzeko aukera izaten dugu.

Zertarako behar dute ikasleek hezkidetzako edo sexuen hezkuntza lantzea?

Beharrezkoa iruditzen zaigu, alde batetik, sexu heziketa jasotzea gertatuko



zaizkigun gauzak ulertzeko eta formakuntza izateko hasieratik. Horretaz gain, hezkidetzako eta tratu onen inguruko lanketa egitea beharrezkoa da elkarbizitza hobea izateko.

Hezkidetzako egitasmo honetan, zer nolako esperientzia izan duzue?

Oso ona izan da, batez ere, ikaskide eta hezitzaileekin izandako harremanetan. Gauza asko ikasi ditugula eta aurrera begira lanean jarraitzeko interesa dugu.



Zer ekarpen egin du Hezkidetza programak?

Urteetan isilean egon diren gaiak mahai gainean jartzeko balioa izaten ari da. Espazio eta materialen behaketa zorrotza egitetik, gorputzak ezagutzera edo albokoarekin ditugun jarreraz hausnartzeko balio digu. Ikasle, guraso eta irakasleok ditugun behar, beldur eta jakinminari erantzuteko orduan laguntza handia izaten ari da.

Zer-nolako balorazioa egiten duzue?

Oso gustura gaude. Programa ikasleekin bizi ditugun egunerokotasuneko kezketatik abiatuta, horiei erantzuna emateko sorturiko programa da, eta, beraz, momentuan lagungarri egiten zaigu gai ezberdinak jorratzeko.

Zein ekarpen egiten dio foroak ikastetxeei?

Foroan elkartzen gara haur, nerabe eta gazteen irakaskuntzan eta parekidetasun arloan lan egiten duten profesionalak. Elkarrekin hitz egin, ideiak konpartitu, beharrak ikusi eta elkarri aholkuak emateko gune aproposa da. Bertan zehazten ditugu urteko erronkak, herri mailakoak zein bakoitzak bere esparrukoak; gure kasuan ikastolako ikasturteko erronkak.

Ikastetxeak, gurasoak, gazteak... biltzen zarete. Beharrezkoa da gune bat izatea?

Oso garrantzitsua da. Zurrumbilo batean bizi gara eta ez dugu tarterik hartzen barrura begiratu eta gure jokatibidez hausnartzeko. Foroak tartetxo hori eskaintzen digu eta gainera gurasoak, gazteak, irakasleak... denok elkarrekin hartzen dugu tartetxo hori. Hor hausnartzen dugu zer behar ditugun eta nola lagundu elkarri gizarte parekideagoa sortzeko.

Zein lanketa egiten duzue?

Alde batetik, sexu heziketako saioek gazteak dituzte protagonista, baina adar ezberdinetatik jorratzen dira: ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin. Hitzaldi, formakuntza edo aholkularitza zerbitzu bidez lantzen ditugu eta sexu harremanak, hilerokoa, transexualitatea, gorputz esplorazioa, pornografia, tratatu onak...gaiak lantzen ditugu. Eta, bestetik, eragile bakoitzak bere arlotik egin nahi dituen lanketak dauzkagu. Espazioen egokitzapenak, gorputz hezkuntza eredua, eskola kirola...



Zer ekarpen egin du Hezkidetza programak?

Ekarpena handia eta garrantzitsua da. Eragile desberdinak, hezkidetza bezalako arlo garrantzitsuan lanean batera jarri gaitu. Hori bera aberatsa da. Gure herria berdintasunean oinarritzen den herri bat izatea nahi dugu, guztiontzat izango den herriaren sorrerakuntzan eta eraikuntzan lan egin. Hasi bakarrik egin dela uste dut, eta

hori da ekarpen nagusia. Bide horren lehen urratsak egitea.

Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Balorazioa oso positiboa da. Ez nekien ekintzen berri izan dut eta talde ireki batean parte hartzeko aukera eman dit. Urtebete daramat, eta oso gustora joaten naiz. Programa oso ederra da herrigintzan lan egiteko. Jarraitzeko gogoz nago.

Foroan guraso gisa hartzen duzu parte.

Hezkidetzan gurasoen papera derri gorrezkoa da. Herria denok osatzen dugu, eta nola ulertu ikastetxeak, gaztelekuak eta gazteek parte hartzen duten foroa gurasorik gabe? Guztion iritzi eta ikuspuntuak egotea aberatsa da eta komunikazio irekia izatea garrantzitsua. Herri baten heziketan, gurasoek ere papel garrantzitsua dute. Ezin dugu kanpoan geratu, gazteentzat beraiekin elkarlanean eta elkarri lagunduz eraiki behar

da herria. Horrelako iniziatibak egoiteak, ikuspuntu eta esperientzia desberdinak elkarbanatzea dakar. Hori beti da positiboa.

Zer eman dizu foroan egoteak?

Informazioa eman dit eta poztu egin naiz. Ez nekien foroaren berri kasik bertan parte hartu arte. Eta zenbat lan eta gauza egiten diren ikusi dut. Ikastetxe guztiek, autoantolaketa taldeek, gaztelekuak, Udalak... denen parte hartzea ikusi dut. Iritziak konpartitu eta ekarpenak egiteko txokoa dago eta horretarako aukera eman dit.

Ezinbestekoa da eragile desberdinen elkarlana?

Dudik gabe. Hezkidetza elkarlanean eta berdintasunean oinarritzen da eta hori horrela izanik, zenbat eta irekiagoa eta zabalagoa izan eztabaidarako eta esperientziak konpartitzeko, hobe. Hezkidetzaren ezinbesteko oinarrietakoa da elkarlana.



BIZI KALITATEA BERMATZEKO GIZARTE LAGUNTZA DESBERDINAK, HERRITARREN ESKURA

Azpeitiko Udalak 2019a bukatzerako onartu zituen 2020. urterako aurrekontuak, eta Azpeitiak izan dituen inoizko aurrekontu sozialenak dira. Aurrekontu horien ardatz estrategikoetako bat Gizarte Zerbitzuak eta gizarte babesa dira: “Herritarrek daude gure politiken erdigunean, eta egunetik egunera azpeitiar guztiek, eta, batez ere, herritarrek bizi kalitate hobea izan dezaten egiten dugu lan”, adierazi du Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak.

“Azpeitiar guztiek lekua izango duten herria izatea nahi dugu. Behin eta berriz esan dugu gure helburua

azpeitiarren bizi kalitatea hobetzea dela. Eta, batez ere, okerren pasatzen ari direnekin pentsatuta jarriko ditugu abian gure asmoak. Herri inklusiboa, bere zentzurik zabalenean, izatea dugu helburu”, zehaztu du Alkorta.

Herri inklusiboa, baita okerren pasatzen ari direnekin ere: “Gaur herritar batzuk dira laguntzak edo zerbitzuak behar dituztenak, eta bihar gu izango gara”, gaineratu du. Eta behar horiek detektatu zerbitzu edo laguntzak bideratu eta herritarrei horien berri ematea da bere asmoa. Hala ere, askotan, herritarrek oraindik ere udaletxera jotzeko

eta galdetzeko joera falta duela jakitun da: “Diru-laguntza eta zerbitzu ugari eskaintzen ditugu. Askotan, ordea, herritarrek ez dute jakiten zer jasotzeko eskubidea edo aukera duten. Aprobetxatu nahi nuke beharra sentitzen kolektibo desberdinetako kideak udalera etortzera animatzeko. Horretarako gaude, herritarren arazoei eta beharrei erantzunak emateko”.

424 FAMILIAK JASO DUTE LAGUNTZA

2019an 424 familiak jaso zituzten laguntzak kontzeptu desberdinetan; horietatik 238 familiak gizarte larrial-



Leire Goenaga
Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua

Gizarte babesa Udalaren ardatzen artean aipatzen duzue. Bai, Azpeitia justizia sozialean oinarritutako herria izatea nahi dugu; inor atzean uzterik ez dugu nahi. Horretarako bidea dira Udalaren Gizarte Zerbitzuak. Bertan, okerren pasatzen ari direnentzako diru laguntza eta zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugu.

Baina gizarte babesaz hitz egitean, zertaz ari gara zehazki? Gizarte babesaz ari garenean beharra dutenak babesteaz ari gara. Zerbitzu edo laguntzen bidez egoera edo behar horri erantzuteko bideak emateaz ari gara. Gizarte babesaz hitz egitean egoera ekonomiko larria dutenak babesteaz ari gara; menpekotasuna duten herritarrez ari gara; prekarietatean bizi direnez ari gara; gazteez ari gara; erretirora iritsi eta pentsio eskasa dutenez ari gara, jatorri eta arraza desberdinetako herritarrez ari gara eta horiek babesteaz, eta justizia soziala bultzatzeaz ari gara.

2020ko aurrekontuetan igo egin da sail horren aurrekontua. Bai. Azken urteotan behar desberdinak identifikatu eta diru laguntza propio batzuk jarri ditugu abian, eta horretaz gain, herritarrei, eta batez ere adinekoei dituzten laguntzen berri eman eta udaletxea gertuago senti de-


zaten ahalegin berezia egin dugu. Horrek, guztiak ekarri du 2020an bi milioi eurotik gorako aurrekontua izatea.

Gizarte Zerbitzuek zein sektoreen beharrei erantzuten die? Gaur laguntza behar dutenak batzuk dira, eta bihar, geuk beharko ditugu ziurrenik era bateko edo beste-ko laguntzak. Gizarte Zerbitzuetan sektore bulnerrable ezberdinak daude, eta horiei guztiei erantzungo dien politika aurrerakoiak abian jartzea da gure helburua. Horretarako, herrian behar ezberdinak zeintzuk diren jakiteko ikerketa desberdinak egiten ditugu, eta azterketa horien baitan beharrei nola erantzun zehaztu eta abian jarri beharreko prebentzio neurriak ezarri.


Badago beharra duen perfil jakin bat? Ez. Gizarte zerbitzuetako laguntzak zabalak dira, familia esku-hartzetik hasi eta menpekotasun egoeran dauden adinekoetarako hiltzen dira bertako zerbitzu eta laguntzak. Edonork edozein momentutan izan dezake zailtasunen bat eta horiei erantzuteko gaude. Gure lan eremua oso zabala da, behar ezberdin asko dituztelako herritarrek.

Gizartea gero eta zaharragoa da, hori ere erronka bat izango da. Bai, noski. Arreta berezia jartzen ari gara gizartearen zahartzeari. Arlo horretan, azterketa eta lanketa desberdinak egiten ari gara etorkizunari aurre hartu eta behar diren neurriak gaurtik hartzeko.

Herrian badira arlo honetan lan egiten duten elkarte edo taldeak ere. Bai eta eskertzekoa da benetan egiten duten lana. Denbora falta da gure gizartearen gaitz handienetarako bat, eta talde boluntario horiek, besteei denbora eskaintzen diete, eta Azpeitia hobeago eta justuago bat izateko bere aletxoak jartzen dute. Harremana dugu guztiekin eta gu hor gaude behar dutena eskaintzeko.



dietarako laguntzak edo Udal Laguntzak jaso dituzte, gizarte bazterketa ekonomiko arriskuan daudelako edo erortzeko arriskuan daudelako. 121 familiak ikastetxez kanpoko formaziorako bekak jaso dituzte, 65.000€guztira. 65 familiak etxebizitzaren alokairurako laguntzak jaso dituzte (horretarako berezitutako diru-laguntza dealdian). Eta 59 familia izan dira 65 urtetik gorakoei zuzendutako 1.080 arteko diru sarrerak bermatzeko kontzeptu desberdinen bidez laguntza jaso dutenak; 162.078€ bideratu dira horretarako.



LAGUNTZAK

Udal laguntza ekonomikoak gizarte-bazterketa edota muturreko behar egoerak arintzeko

Azpeitiko Udalak sortutako diru laguntza honen bidez, herritarren ekonomiaren gorabeherak direla eta okerren pasatzen ari diren herritarrei laguntza eskaintzeko diru laguntza da. Laguntza propio honen bidez, beste hainbat diru-laguntzek jasotzen ez dituzten hainbat kontzepturen inguruan laguntzak eskaintzen zaizkie herritarrei.

Diru laguntza: 305.834€

Honako kontzeptuetan ematen dira laguntzak:

1. Etxebizitzaren kredituen amortizazioak eta interesak.
2. Izaera publikoa ez duen etxebizitzaren alokairua.
3. Izaera publikoko etxebizitzaren alokairua
4. Ko-errentamendua, azpierreantamendua, ostatu-ematea eta apopilotza.
5. Etxebizitzaren mantentze-gastuak, udal tasak, etxebizitzaren aseguruak, etxebizitzaren kontribuzioa.
6. Energia gastuak (argindarra eta gasa).
7. Oinarritzko beharrei dagozkien gastuak: botikak, eskola partikularrak, heriotza-gastuak, premiazko oinarritzko beharrak, betaurrekoak...

1.080 arte erretiratuen kasuan

Laguntza honetan, hainbat kontzepturen baitan, laguntza bereziak eskaintzen zaizkie jubilatuta eta erretiratuei, beti ere, pentsio baxuena dutenei. Hala 1.080€ko diru sarrerak bermatzen zaizkie familia unitateko.

2019ko datuak

2019. urtean 65 urtetik gorako 59 pertsona lagundu dira, eta 1.080€arteko diru sarrerak bermatu zaizkie, kontzeptu desberdinen bidez. Horretarako, 162.078€ bideratu dira. Horiez gain, okerren pasatzen ari ziren familiei 143.756€ bideratu zaizkie.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Gizarte-bazterketa aurreikusteko, saihesteko edo leuntzeko diru laguntzak dira gizarte larrialdikoak. Laguntza hau Udalak kudeatzen du, Eusko Jaurlaritzak ematen badu ere. Hala ere, erakunde horrek jartzen duen laguntza kopurua ekainerako bukatuta egon ohi da eta Azpeitiko Udalak ego-kitzen zaion guztiak laguntza jasotzeko duen eskubidea oinarri hartuta, diru laguntza osatzeko behar den poltsa osatzen du. Hala, herrian beharra duen eta baldintzak betetzen duen orok jasotzen du.

2019n, 238 familiak jaso dute gizarte larrialdietarako laguntza, kontzeptu desberdinen bidez.

2019an, Azpeitiko Udalak eskaera guztiei erantzuteko 250.700€jarri zituen, urtearen erdia baino lehen gastatu zirelako Jaurlaritzak behar horiei erantzuteko Azpeitira bideratutako 107.976€ak.



FORMAZIORAKO LAGUNTZAK

Azken urteotan, babes eta justizia soziala helburu, Azpeiti-ko Udalak jarri dituen beste diru-laguntza propioa da. Udalak zuzenean kudeatzen eta ematen ditu laguntzak.

Formaziorako bi linea ditu zehazki, eta 65.000 euroko partida bidera du zuen 2019an, horretarako.

Laguntza horien baitan, linea bat 3-18 urte arteko haur eta gaztekoen hezkuntza ez arautuko hainbat ekintzetarako laguntza da eta urtearen lehen seihilabetekoan, 121 familiak jaso dute laguntza hori.

Kirol, aisi eta formaziorako laguntza jasotzeko akademia gastuak laguntzen dira diruz.

2019an, 40.000€ko diru poltsa jarri zuen aurrekontuetan linea horretarako, baina eskaera asko izan ziren, eta beharra zuten guztiei erantzuteko diru gehiago jarri behar izan zuen.

3-18 urte arteko haur eta gaztekoen diruz lagun daitezkeen formazio ekintzak

- Arte-Musika-Dantza arloari dagozkion formazio ekintzak.
- Gaztedia saileko formazio ekintzak.

- Kirol arloari dagozkion formazio ekintzak. Kiroldegiko instalazioetako bazkide-kuota.
- Hezkuntza arautuko arlotik kanpo garatutako beste zenbait motatako jarduerak, eta Udalak aurretik aztertuta, gizartearentzat komunitate-eta gizarte-ikuspegitik begiraturik garrantzitsuak jotzen direnak.

25 urtetik gorako langabetu edo %50eko jardunaldian daudenentzat


Beka sistema honen helburua da pertsona horientzako formazioa eskaintzea, eta horrela, lan-mundura sartzea erraztea edota lan baldintzak hobetzeko aukerak sortzea.

Diruz lagun daitezkeen formazio ekintzak:

- Profesionaltasun egiaztagiria lortzeko edozein mailatako formazio ekintzak.
- Lanbide heziketako zikloak egiteko formazio ekintzak.
- Beste formazio ekin tza mota batzuk, betiere Udalak aztertu ondoren, ikusten baldin bada gizartearentzat esangura

Matrikula (590 euroa arte), joan-etorriak eta ikas materialaren erosketa gastuak laguntzen ditu Udalak.

Laguntzak urte guztian eskatu daitezke udaletxean.



ETXEBIZITZEN ALOKAIURAKO LAGUNTZAK

Herritarren etxebizitza beharrari erantzuna emateko duela sei urte jarri zen abian laguntza hori, alokairua ordaintzeko arazoak dituzten herritarrei laguntza eskaintzeko, herriko etxe hutsak merkaturatzeko eta alokairua sustatzeko eta Alde Zaharra biziberritzen jarraitzeko helburuarekin. Guztira, urte hauetan, 400 laguntza inguru eman dira.

Nori zuzendua

- 18 eta 35 urte (hau barne) bitarteko adina duten gazteak.
- Mugikortasun urria duten pertsonak (edozein adineta-koak) edo/eta ezgaitasun absolutoa dutenak.
- Bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak. Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxe bizitza ezkonkide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxe bizitza bat alokatuko behar balute.
- 70 urtetik gorako pertsonak.
- Alargunak.

Diru-sarreraren arabera laguntzak


Diru-laguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da. Gehienez, hilean 250,00 euro jasoko ditu eskatzaileak (lagunduko den alokairuaren gehinezko prezioa 550€koa izango da) eta 12 hilabeteko epealdi batetarako. Alde Zaharrean kokatuta dauden etxe bizitzaren kasuan, diru laguntzaren zenbatekoa atal sistemaren arabera dagokion laguntzari 50€ gehitzen zaizkio, edonola ere gehienez hilean 300,00 euroko diru-laguntza ezartzen da eskaera bakoitzeko.

2019an, 180.000 eurotako diru-poltsa jarri zuen Udalak eta 65 lagun izan ziren laguntza jaso zutenak.

Eskaerak urriaren 15a baino lehen egin behar izaten dira udaletxean.

Eskatu diru-laguntzen inguruko informazioa
Udaletxeko 2. solairuan

Telefona: 943 15 71 92
e-posta: gizartezerbitzuak@azpeitia.eus



GOIZ LAGUN: ADINEKOEN AUTONOMIA LANTZEKO ZERBITZUA

2019an proba gisa jarri zen abian, eta emaitzak ikusita 2020an, Sanjuandegi auzoan jarriko da zerbitzua martxan

Azpeitiko Udalak iaz jarri zuen abian Goiz lagun zerbitzua, eta herritarrek eginiko harrera ikusita, 2020an, zerbitzua indartzeko konpromisoa hartu du, Zerbitzu hori hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonen zuzendurik dago eta arlo edo eremu desberdinak lantzen dira saioetan adinekoekin. Gaur egun, 15 bat lagunek jasotzen dute zerbitzua.

“Azpeitiko Udalak, zerbitzu pionero honekin, adinekoen menpekotasun egoeraren aurre lanketa egitea du helburu. Hala, adinekoen autonomia-ri eusten laguntzea, ohiko inguruan mantentzea zein gizarteratzen laguntzea eta etorkizunean izan ditzaketen nahasteak aurrezaintza edo atzeratzea dira helburuak”, adierazi du

Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua.

“Hasieratik arrakasta handia izan duen zerbitzua izan da, eta Azpeitiko Udalak 2020an Sanjuandegi auzoan eskaintzeko erabakia hartu du. Menpekotasun egoerak prebenitzeko zerbitzu garrantzitsua dela uste du Udalak, eta horregatik, emaitzak ikusita, hartu du erabaki hori”, zehaztu du Goenagak. Hasieratik, bidelagun Caixa izan dute, gizarte ekintzara bideratzen dirua jaso du Udalak.

HIRU ARLO EDO EREMUTAN EGITEN DA LAN ERABILTZAILEEKIN:

Eremu kognitiboa:

- Gaitasun kognitiboen (atentzioa, oroimena, lengoaia...) galera aurrezaintza edo atzeratu, gaitasun horiek estimulatzea zuzenduriko teknikak erabiliaz.

Eremu psiko-afektiboa:

- Antsietate egoerak suposa ditzakeen efektu negatiboak aurrezaintza.
- Depresio sintomak aurrezaintza.
- Komunikazioa eta talde partaidetza sentimendua suspertzea.

Harreman, aisialdi eta kultura eremua:

- Gaurkotasunaren informazioa eskaintzea, errealitatea ezagutzera lagunduz.
- Aisialdi sortzaile eta emankor baten suspertzea.

ZER LANTZEN DA ZEHAZKI ERABILTZAILEEKIN?

Saio hauetan parte hartzeak galera kognitiboak atzeratzea edota aurrezaintza lagundu dezake. Oroimena eta bestelako funtzio kognitiboak lantzen edo estimulatzen ez badira

horien galtzea sor daiteke, pertsonen bizi-kalitatean eraginez. Estimulazio kognitiboa, gainera, adinean joan ahala eman daitezkeen oroimen arazoak aurrezaintzeko baliagarria da.

- Esku terapia. Mugimenduaren birtutez, motritzitatea landuko da, egunean zehar ohiz egiten diren ekintzetan hobeto moldatzen laguntzeko eta norbanakoari kontrol sententzioa eta autoestimua hobetzeko.
- Prentsa saioak. Bere inguruan gertatukoaren informazioa jasotzeko aukera eskaintzen dio norbanakoari eta honen inguruan bere epai propioak garatzeko aukera ere.
- Aisi jarduerak. Aisi jardueren birtutez norbanakoaren oinarritzko gaitasun batzuk (arreta, kontzentrazioa, kalkulua, oroimen...) garatzea bilatzen da.
- Erlaxazioa. Erlaxazio entrenamendua antsietate arazoak, depresio arazoak edo arazo fisikoak sendatu eta hobetzeko baliagarria da. Arazo horiek haserako galera kognitibo baten ondorio izan daitezke eta askotan errendimendu kognitibo hori okertu dezaketen faktore emozionaletan islatzen da.

LAN METODOLOGIA:

Aukeratutako jarduerak erabiltzaileen gustu eta motibazioei egokitu dira, proiektuak aurrera egiten duen heinean, erabiltzaileen interes eta eskaerei erantzunez, aldatzeko aukera izango da

Goiz lagun zerbitzuan gehienez 15 pertsonekin osatutako taldea izango da, eta saioak goizez izango dira.

Informazioa gehiagorako
Gizarte Zerbitzuetako sailean
Telefona: 943 15 71 92
e-posta: gizarte@azpeitia.eus



Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna



Azpeitian,
365 egunez emakumeen
eskubideen alde lanean

